



# QuickHelp®




Gure produktuaren ideia esperientzia baten ondorioz bururatu zitzaigun. Gure taldeko pertsona bat bere lagunak bizi diren lekutik urrun bizi da, eta gauetan etxera bakarrik joan behar duenean, beldurrez joaten da. Guk, adin txikiko emakumeak izanda, ondo ulertzen dugu egoera hori. Emakume guztiok bizi dugu noiz baiten antzeko egoera bat, kaletik joatean, gauean batez ere, segurtasun falta sentitu dugu.

Egunero emakumeenganako indarkeri kasuak egoten dira, fisikoak naiz psikologikoak.

Hona hemen 2016ko zenbait grafiko:



Gráfica 1. Edad de la mujer y riesgo de violación y otros asaltos sexuales por hombres (N=252.674) (Ajustado por edad)



Segurtasun falta honen kontra zerbait egiteko gogo sutsuak piztu ziren gure barnean, emakume guztiak kaletik lasai joan dezaten. Horren ondorioz, eskumuturrekoaren ideia bururatu zitzaigun. Gure produktua GPS bat integratuta izango du, guk sortutako segurtasun enpresa batekin konektatuta. Horrela, neska bat mehatxatuta edo arriskuan sentitzen bada, produktuaren botoia sakatu eta azkar jasoko du laguntza.

Idea garatzen joan ahala, konturatu ginen eskumuturrekoa beste arazo batzuk konpontzeko ere baliagarria zela. Konturatu ginen edonork larrialdi bat izan dezatela eta laguntza azkar eskatzeko moduak ez daudela, mugikorrek egon arren, askotan horrelako egoeretan, jendea ez dauka denbora larrialdietako telefonora idazteko edo deitzeko. Gure eskumurrekoarekin, botoi bat sakatzen, laguntza modu azkarrean bidaltzeko ahalmena izango dugu. Adibidez, norbaitek auto istripu bat badauka eta ez badaki errepidearen zein zatitan dagoen, galduta badago, botoia sakatzen persona hori lokalizatzeko gai izango gara segundu batzuetan.